

**INMERSIONES XVII
+ FEMINISTALDIA**

**agur
eta
clao**

Vitoria-Gasteiz • 2024

INMERSIONES 2024

aqur *ta* clao

Vitoria-Gasteiz • Abenduak 14 Diciembre

Euskal Herriko artista berrien XVII. biltzarra
XVII Congreso de artistas emergentes de Euskal Herria

+ XIX FEMINISTALDIA

Azaroak 20 / 27-30 Noviembre
Donostia 2024

inmersionesgasteiz.com



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Vital
FUNDACIÓN · FUNDAZIOA



INMERSIONES
KULTUR ELKARTEA • ASOCIACIÓN CULTURAL

KREDITUAK / CRÉDITOS

► **INMERSIONES 2024**

AGUR ETA CIAO

► **EDIZIOA / EDICIÓN**

Asociación Cultural INMERSIONES Kultur Elkartea

► **KOMISARIOTZA / COMISARIADO**

FEMINISTALDIA, Kultura Feminista Jaialdia

► **PRODUKZIOA / PRODUCCIÓN**

Cristina Arrazola-Oñate

► **LAGUNTZAILEA / AYUDANTE**

Alice Borsani

► **EDUCACCIONES • TAILLERRAK / TALLERES**

Yun Ping Li

► **EUSKARRI TEKNIKOA / SOPORTE TÉCNICO**

Eneka Aranzabal

► **SARE SOZIALAK / RRSS**

Marieta Vargas

► **KATALOGOAREN EDIZIOA / EDICIÓN DEL CATÁLOGO**

Cristina Arrazola-Oñate & Leire San Martín

► **TESTUAK / TEXTOS**

Autoreak / Lxs autorxs

► **ARGAZKIAK / FOTOGRAFÍAS**

Maider Jiménez

► **ILUSTRAZIOAK / ILUSTRACIONES**

Andrea Ganuza

► **ITZULPENAK / TRADUCCIONES**

Danele Sarriugarte Mochales

► **MAKETAZIOA / MAQUETACIÓN**

Ibon Sáenz de Olazagoitia

► **LAGUNTZA / COLABORACIÓN**

Máster CYXAC Masterra (EHU)

► **INPRENTA / IMPRENTA**

Dosbi

► **ISBN**

978-84-09-73642-3

► **LEGE GORDAILUA / DEPÓSITO LEGAL**

LG G 00453-2025

► **LIZENTZIA / LICENCIA • CREATIVE COMMONS**

Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Espainia / Reconocimiento-NoComercial-SinObraDerivada 4.0 España

AURKIBIDEA / ÍNDICE

► FEMINISTALDIA, KULTURA FEMINISTA ELKARTEA	04
Intro	
► LAURA MUELAS + LEIRE SAN MARTÍN	06
<i>agur eta ciao: jaialdi bat dragoi bat nolakoa / agur eta ciao: un festival como un dragón</i>	
► YUN PING LI	10
Educaciones. Arte Garaikideko Tailerrak Gazteentzat / Talleres de Arte Contemporáneo para Jóvenes	
► LAS NENAS	16
Nosferatu dancing to lady gaga	
► LORENA GARCÍA ESPINO + NELLY RAMOS	18
Dolua (des)mitifikatzea / (Des)mitificar el duelo	
► IÑURRI ELKARTEA	20
Iñurritegiaren babesa. Minbiziari besarkada / El apoyo del hormiguero. Abrazando el cáncer	
► INÉS PLASENCIA CAMPS	22
Lurra irakurtzen ikasi zenuen lekua jada ez da existitzen / El lugar en el que aprendiste a leer la tierra ya no existe	
► MIRARI ECHÁVARRI	24
Bere lana, bere lan propioa / Su trabajo, su propio trabajo	
► KARLOS MARTÍNEZ BORDOY	26
Threaded Connections	
► CONCHA GARCÍA DE LA FUENTE + YESE ASTARLOA	28
Hitzak milaka / Palabras a mil	
► HARROTU ILEAK + ZINELAB	30
Ostiral-ametsak / Sueños de viernes	
► HANNAH WHELAN + LADY VIVIANA TORO PELAEZ	32
Te-Topaketa / Té-encuentro	
► GUAGUA REKIA	34
GIBen historia neure historia ere bada / La historia del VIH también es mi historia	
► BRU NOARA	36
Fenix Trabestia / Fénix Travesti	
► JON GARRIDO GALLARDO + ANDER SANTXEZ REY	38
...esango nizun...	
► MIREN NARBAIZA + DANELE SARRIUGARTE	40
kaixo, karis / hola, karis	
► LUZ BROTO	42
Jaialdiko pertsona guztiak agurtzea / Saludar a todas las personas del festival	
► GIROA / AMBIENTE	44
Argazkilaria / Fotografía: Maider Jiménez • Narratzaile Grafikoa / Registro Gráfico: Andrea Ganuza	
► ERAKUSKETAK / EXPOSICIONES	47
Argazkilaria / Fotografía: Maider Jiménez	
► INMERSIONES 2008-2024	52
2008tik 2024ra arteko parte-hartzaileen zerrenda / Listado de participantes desde 2008 a 2024	

Feministaldia, Kultura Feminista Elkarte

SARRERA

agur, ciao: euskaraz eta italieraz “kaixo” esateko, “adio” esateko balio dute. *agur eta ciao* izan daiteke bertsolariak dionean *agur*, doluak dakarrenean *agur*, kalean gurutzatzen direnen *ciao* axolagabea, desertzioaren *agur*, inoiz gehiago ikusi nahi ez duzun horri esaten diozun *ciao pescao*, *agur* familiari, *ciao* maitasunari. *agur eta ciao* iritsi eta denbora batez geratzea da, betirako geratzea da. Baina alde egitea ere bada, berriz ez itzultzeko, edo ezberdin itzultzeko. Elkar topatzen duzunean besteari ematen diozun besarkada da, eta joaten zarenean ematen diozuna ere bai.

Feministaldia XIX eta Inmersiones XVII jaialdiak ahizpatu egin dira elkarri *agur eta ciao* esateko eta hori bera ospatzeko: topaketa, eta topaketaren inguruan mugitzen den guztia. Izan ere, programa kulturalen muina beti da harrera egitea, laguntzea eta agurtzea: gonbidatuak agurtu, lantaldeak lagundu, lagunak jaso. Jaialdi bat gonbidapen emailean bidaltzen duzun hasierako *kaixo zer moduz* hori da, kultur-zentroak egiten dizun harrera, laguntzen zaituen laguna, bertan topatzen duzun jendea, beraiekin barre eta negar egitea, entzutea.

“*Agur eta ohore*: ospe handiko pertsonari egiten zaion gorazarreko *agurra*”, gurean, solemnitatea alde batera utzi eta queer bilakatzen da munduko leku ezberdinetako jendearekin topo egiteko: *agur* Donostia eta Gasteizera zatoztenoi, *ciao* harremanak, loturak, lagunak, familiak, desenkuentzakoak, harrera-protokoloak, banaketak pentsatu nahi dituzuen orori. Desertore, artista, sorgin, filosofa, aktibista eta ahizpen topaketa praktikatu eta gorpuztuko dugu. 2024an festara iritsi berri diren horien eskutik ate berriak ireki nahi ditugu; dagoeneko ez dau denak agertzea nahi dugu, hil direnak, ahanzturara kondenatutako eskutik sarrera eta irteera bideak bilatu nahi ditugu.

agur eta ciao lo egiten dutenei, amets egiten dutenei, borrokatzen direnei, bizimodu eta bizileku bizigarriagoak asmatzen dituztenei. Ez dira garai errazak. *agur eta ciao* maitasunez, amorruz, elkartasunez, dantza, dolu eta desparramez.

INTRODUCCIÓN

agur, ciao: del euskera y del italiano sirven para decir “hola” pero también para decir “adiós”. *agur eta ciao* podría ser el *agur* de las bertsolaris, el *agur* del duelo, el *ciao* despreocupado de las que se cruzan por la calle, el *agur* de la deserción, el *ciao pescao* que le dices a quien no quieres nunca más ver, el *agur* a la familia, el *ciao* a un amor. *agur eta ciao* es llegar y permanecer un tiempo, es permanecer por siempre. Pero es también decidir marchar para no volver, o para volver distinta. Es el abrazo de cuando te encuentras y es el abrazo de cuando te vas.

Los festivales Feministaldia XIX e Inmersiones XVII se dicen *agur eta ciao* hermanados para celebrar eso mismo: el encuentro y todo lo que a su alrededor se mueve. Porque ambos programas culturales son, sobre todas las cosas, espacios en los que recibir, acoger, acompañar, despedir. A invitades, equipos, amigos. Un festival es el *hola que tal* en el email de invitación, es la acogida del y en el centro cultural, son las amigas que acompañan, es la gente que te encuentras, a la que escuchas, con la que te ríes y lloras.

Nuestro *agur eta ohore* deviene queer y abandona la solemnidad para encontrarse con gentes de todos los lugares de la tierra: *agur* a las que venís a Donostia y Gasteiz a pensar juntas sobre las relaciones, el vínculo, las amigas, las familias, el desencuentro, los protocolos de acogida, las despedidas. Pero no solo a pensar sino también a practicar y encarnar un encuentro de desertoras, artistas, brujas, filósofas, activistas, hermanas. En este 2024 queremos que se abran nuevas puertas de la mano de quienes acaban de llegar a la fiesta; y que aparezcan también las que ya no están, nuestras muertas, las de todas las condenadas al olvido, para que ellas nos enseñen sus caminos de entrada y de salida.

agur eta ciao a las que duermen, sueñan, luchan e inventan tiempos y espacios más vivibles hoy, que la cosa no está fácil. *agur eta ciao* desde el amor, la rabia, la solidaridad, el baile, el duelo y el desparrame de cuerpos.



AGUR ETA CIAO

Jaialdi bat dragoi bat nolakoa

Laura Muelas + Leire San Martín

Laura Muelas eta Leire San Martínek Feministaldia koordinatzen dute hauekin batera: Xerra Estudioa, (Ane Lusarreta eta Laida Zapre), Mirari Echávarri, Miren Jone Lizarzaburu, Idoia Zabaleta eta Yuan Zhou. Gainera, beste lagun eta aliatu batzuk ere badituzte inguruan, zeinak ezinbestekoak baitira jaialdia aurrera ateratzeko. 2024an, Feministaldia eta Inmersiones ahizpatu egin ziren, eta programazio bateratua aurkeztu zuten, *agur eta ciao* izenburuarekin.

Ei, begira, Laura, begira zer ikusten den han urrunean: mendi bat da, eta bizkarrean zenbait pertsona karabanan; ilaran doaz, argi-kontran bezala. Jauzika doaz, dantzan ia, elkar besarkatzen dute, bereizi egiten dira, aurrera egiten dute baina geratu ere geratzen dira, eta atzerantz egiten dute, nahiz eta, denbora igaro ahala, sumatzen den aurrera egiten dutela, bai, kostata nabaritzen da, baina aurrerantz doa taldearen jarioa, iritsi da taldea gailurrera, gandorrean zehar segitzen du. Beren mugimenduak dragoi baten forma marrazten du, inauteri betean. Fokuratu pixka bat, Leire, begiratu, begiratu gerturik, ez da edozein karabana, jende bitxien karabana bat baizik, zirkutik ateratako jendeak, kale ilunetatik, tabernetatik eta gautik, ibaitik, kobazuloetatik, basoetatik. Halako jendeak gutxitan ikusten ditugu egun-argitan, bazterretan ezkututzen dira-eta. Baina orain topo egin dute eta elkarrekin doaz euripean eta eguzkitan. Oso polita da ikustea, Laura. Izaki altuak eta baxuak, lodiak eta meheak, elbarriak, zaurituak, distiratsuak. *Ttak*, begira, bat-batean gu biok ere barruan gaude, desfilean, aurpegiak arkitzen zaizkigu. Orain, gertu gaudelarik, parte garelarik, sentitu egiten dugu, bizi, ikusi, flipe hutsa. Jende hauen artean denetik gertatzen da: batek ipuin bat irakurtzen du ahoz gora, batzuk kantuan eta dantzan ari dira, beste zenbait dado batekin jolasean dabiltza, askok beren buruaz barre egiten dute, edo negar egiten dute, maite dituztenak gogoan. Bat beti dago karabanaren buruan, eta ondotik pasatzen zaizkion guztiak agurtzen ditu: *agur*, *ciao*. Gutako azkena agurtu duenean, neska, bukaeran geratu baita, burura itzultzen da berrirori, eta diosala errepikatzen du, agurra errepikatzen. Horrela, buklean. Honek guztiak zinemako eszena bat dirudi, eta, badakizu, uste dut gertatu zena eta filmetan ikusi dudana nahasten nabilela.

Nahastu egiten dut gertatu zena eta zer izan zela irudikatzen dudan eta beste batzuek egin dutena eta izan litekeena.

Gertatu zena gertatu zen: azaroak 20, Le Bukowski. Fernanda Laguna eta Vito Gil-Delgado. Poesia eta barreak eta ekintza politikoa, Pomada Banda bere performancea egiten Monique Wittigengandik abiatuta. Azaroak 27, Kontadores, Bollotopaketak, Mefsst, Maite Aizpurua eta Intza Alkain, kolektibotasuna, musika, jolasa, lagunak eta beren artean gertatzen diren zerak: zera zailak, zera politak. Azaroak 28, Kontadores. Kulturarteko Plaza Feminista, Erredad eta Usmen, Al-Qawseko Alaa, feminista izatea eta bollera izatea Hernanin, Palestinan, Marokon. Azaroak 29, Tabakalera. Berna Wang, Elena Castro Córdoba, Irene Coulon, Elaine Vilar, ametsak eta geure genealogiak, beharrezkoak, zeinengatik existitzen baikara. Azaroak 30, Tabakalera. Las Nenas, Udane Barinagarrementeria, Tania Safura, Soo-Hyun Moon, María Ibarretxe, Leire Ugalde, Lea Marie Uria, Ederlezi, Patiyoko Atzuak, María Rosón, Leyao Rovira, Lorea Alfaro, Yun Ping, Maider Aldasoro, Uxo, ahotsen, kantuen, gorputzen, formen nahasketa bat. Dabadaba, Labar, LaMia Mari, Lina Pary, Elena Barker, festatzar kuirra. Abenduak 15, ZAS espazioa, Las Nenas, Lorena García+Nelly Ramos, Iñurri, Inés Plasencia Camps, Mirari Echávarri, Karlos M. Bordoy, Concha García+Yese Astarloa, Harrotu ileak+zine.lab, Hannah Whelan+Lady Viviana Toro, Guagua Reikia, Bru Noara, Jon Garrido+Ander Santxez, Miren Narbaiza+Danele Sarriugarte, Luz Broto, dolua, agurra, bidaia, migrazioa, norbait izatea, inork halakorik uzten ez dizunean, joan eta joaten utzi. Jaialdi bat, dragoi bat nolakoa, Laura, dragoiaren burua abiatzen da Donostiako Egia kaletik azaroko egun batean, eta hilabete geroago ZASera iristen da beste egun batean. Bi hirien artean, bere gorputz osoa barreiatuta.



Ei, zaude, Leire, zaude, inauteriaren erdian, dantzaren, hizketaren, irakurketaren, eztabaidatzearen, negar egitearen erdian, elkarri so egiten diogu begiak zabal, harri eta zur, nolakoa prestatu den ikusita. Izan ere, egoera oso bat antolatzen dugu zuk eta biok eta beste lagun askok. Makillatu naute eta makillatu zaitut, festa batera goaz, iritsi berri den bat makillatu duzu. Film bikain bat ikusi dugun espazioa, orain, jangela bat da, eta babarrunak daude guztiontzat, ordura arte inoiz ikusi ez ditugun pertsonekin topo egiten dugu mahaian, eta hizketan katigatzen gara haiekin. Emozioa gure *body* guztian. Nahi izan genuen jaialdi bat dragoi bat nolakoa, zarata egiten zuena jende artean. Egoera batzuk eragin non zarata hori, ez dakit, giro baten modukoa izango baitzen. Zaila da hau azaltzea, Laura, baina badakizu zeri buruz ari naizen, gertatzen dena baina ez dakiguna nola zehaztu, ezta kontatu ere, *han egon* behar da, dragoiaren azalen artean. Azal finak, zalu mugitzen direnak, elastikoak, dragoia norantza aldatzeko gertu, dabilen lurraldea ezagutzen duela, bertako jendeen ondoan kokatzen da. Eta pentsatzen dugu: nolatan iristen gara horretara, nolatan lortzen da giroa? Ez da beti gertatzen, baina, gertatzen denean, zinez ederra da. Izan ere, horretara iristeko, gauzak *horrela egina* izan behar du. Ez begiratu keinu arraro horrekin, badakizu zer esan nahi dudun, ba hori, kanpotik ikusten den forma ez dela kasualitatea, urrutitik ikusten den forma hori egiteko moduaren isla dela. Honelako zerbait da: zu eta biok etxe batean edo taberna batean edo parke bateko bankuan esertzen

garenean, ez bulego batean, eta nolakoa izango den irudikatzen dugu. Egoera irudikatzen dugu. Eta irekita gaude, gerta dadin baimentzeko prest. Gerta dadin, lan egiten dugu, lan eta lan, baina, baita ere, erlaxatu egiten gara, ondo tratatzen dugu elkar, maitasun handia ematen diogu elkarri. Besteekin esertzen gara, Donostiakoekin, Gasteizkoekin, beraiekin ere irudikatzen dugu, erreal bihurtzen hasten gara. Azalan elkartzen gara, beraiekin ere irudikatzen dugu. Mezu luzeak idazten dizkiogu gonbidatu nahi dugun pertsona bakoitzari, telefonoz deitzen diegu, beraiekin elkartzen gara. Kalkulu-orriak egiten ditugu, eta hor jartzen zenbakiak, elkarrekin erabakitzen dugu nola gastatu zenbaki-txo horiek, adibidez, azkenean etorri badatozen pertsonak oheak izan ditzaten hirietan, nekatuta daudenerako, eta bisitan egon ahal izateko egoerak irauten duen bitartean. Dirua gastatzen dugu denei jaten ematen, bazkari eta afari. Eraitsita gaudenean muxu batzuk eman diezazkiguten uzten dugu. Halako gauzak dira, txikiak eta handiak, batzuk hautemanezinak giza begiarentzat; halako gauzak irits daitezke giro bat sortzera jendearen artean.

Donostian eta Gasteizen, une oro, norbait egon zen atean, sartzen zen pertsona bakoitza agurtzen. Kein u horixe, bere horretan, doia eta ederra da.

Donostia, 2025eko martxoa

AGUR ETA CIAO

Un festival como un dragón

Laura Muelas y Leire San Martín

Laura Muelas y Leire San Martín coordinan Feministaldía junto a Xerra Estudioa, (Ane Lusarreta y Laida Zapre), Mirari Echávarri, Miren Jone Lizarzaburu, Idoia Zabaleta y Yuan Zhou. Además, se acompañan de amigas y aliadas que son imprescindibles para llevar adelante el festival. En 2024, Feministaldía e Inmersiones se hermanaron para realizar una programación conjunta a la que titularon *agur eta ciao*.

Ey, mira, Laura, mira lo que se ve a lo lejos: es una montaña, y por su lomo una caravana de personas en fila, como a contraluz. Caminan a saltitos, casi bailan, se abrazan, se despegan, cantan, van hacia adelante pero también se paran y van hacia atrás, aunque a medida que pasa el tiempo se intuye que avanzan, sí, cuesta percibirlo, pero es hacia adelante el fluir del grupo, llega el grupo a la cumbre, continúa por la cresta. Su movimiento dibuja la forma de un dragón en pleno carnaval. Enfoca un poco la vista, Leire, mira, mira más de cerca, no es cualquier caravana, es una caravana de gentes extrañas, de esas gentes como salidas del circo, de las calles oscuras, de los bares y la noche, del río, de las cuevas, de los bosques. Gentes a las que raramente se ve a plena luz del día porque se esconden por las esquinas. Pero ahora se han encontrado y se mueven juntas bajo la lluvia y bajo el sol. Es muy bonito de ver, Laura. Criaturas altas y otras bajas, gordas y delgadas, tullidas, lastimadas, brillantes. *Chas*, mira, de pronto también nosotras dos estamos dentro desfilando, y nuestras caras se iluminan. Ahora que estamos cerca, ahora que somos parte, lo sentimos, lo vivimos, lo vemos, es un flipe. Entre estas gentes pasa de todo: hay alguien que lee un cuento en voz alta, unas cantan y bailan, otras juegan con un dado, muchas se ríen de sí mismas, o lloran a sus seres queridos. Hay una que siempre está en la cabeza de la caravana y saluda a todas las que van pasando junto a ella: *agur, ciao*. Cuando la última de nosotras ha sido despedida, la chica, que se ha quedado al final del todo, vuelve a ponerse a la cabeza y repite el saludo, repite la despedida. Así, en bucle. Parece todo esto una escena de cine, es que sabes, creo que mezclo lo que pasó con lo que he visto en las películas.

Mezclo lo que pasó con lo que imagino que fue con lo que han hecho otras con lo que podría ser.

Pasó lo que pasó: 20 de noviembre, Le Bukowski. Fernanda Laguna y Vito Gil-Delgado. Poesía y risas y acción política, Pomada Banda performing a partir de Monique Wittig. 27 de noviembre, Kontado-

res, Bollotopaketak, Mefsst, Maite Aizpurua e Intza Alkain, colectividad, música, juego, las amigas y lo que pasa entre ellas de difícil, de bonito. 28 de noviembre, Kontadores. Kulturarteko Plaza Feminista, Erredad y Usmen, Alaa de Al-Qaws, ser feminista y ser bollera en Hernani, Palestina, Marruecos. 29 de noviembre, Tabakalera. Berna Wang, Elena Castro Córdoba, Irene Coulon, Elaine Vilar, sueños y genealogías propias, necesarias, las que nos hacen existir. 30 de noviembre, Tabakalera. Las Nenas, Udane Barinagarrementeria, Tania Safura, Soo-Hyun Moon, María Ibarretxe, Leire Ugalde, Lea Marie Uria, Ederlezi, Patiyoko Atzuak, María Rosón, Leyao Rovira, Lorea Alfaro, Yun Ping, Maider Aldasoro, Uxo, una mezcla de voces, cantos, cuerpos, formas. Dabadaba, Labar, LaMia Mari, Lina Pary, Elena Barker, el fiestón queer. 14 de diciembre, Espacio ZAS, Las Nenas, Lorena García+Nelly Ramos, Iñurri, Inés Plasencia Camps, Mirari Echávarri, Karlos M. Bordoy, Concha García+Yese Astarloa, Harrotu ileak+zine_lab, Hannah Whelan+Lady Viviana Toro, Guagua Reikia, Bru Noara, Jon Garrido+Ander Santxex, Miren Narbaiza+Danele Sarriugarte, Luz Broto, el duelo, la despedida, el viaje, la migración, ser alguien cuando nadie te deja serlo, ir y dejar ir. Un festival como un dragón, Laura, con su cabeza saliendo de la calle Egia en Donostia un día de noviembre y llegando a ZAS otro día un mes después. Por en medio de las dos ciudades, todo su cuerpo desparramado.

Ey, espera, Leire, espera, en medio del carnaval, en medio del bailar, charlar, leer, discutir, llorar, nos miramos con los ojos muy abiertos, sorprendidas de la que se ha armao. Y es que es toda una situación que hemos hecho tú y yo y muchas otras amigas. Me maquillan y te maquillo, vamos a una fiesta, tú maquillas a una que acaba de llegar. El espacio en el que hemos visto una gran película ahora es un comedor y hay alubias para todas, coincidimos en la mesa con personas que hasta ahora nunca habíamos visto y nos enredamos en la charla con ellas. Emoción por todas las partes de nuestro *body*. Quisimos un festival como un dragón, con ruido entre la gente. Provocar situaciones en las



que ese ruido fuera, no sé, como una atmósfera. Es difícil explicar esto, Laura, pero ya sabes a lo que me refiero, eso que pasa pero que no se sabe definir ni contar, hay que *estar allí*, entre las pieles del dragón. Pielas finas, de movimiento ágil, elástico, con apertura a los cambios de rumbo, conoce el territorio por el que se mueve, se sitúa junto a sus gentes. Y pensamos, ¿cómo es eso de llegar a eso, eso de conseguir la atmósfera? No siempre pasa, pero cuando pasa, es realmente bello. Y es que, para llegar ahí, la cosa ha tenido que *ser hecha así*. No me mires raro, ya sabes a lo que me refiero, pues eso, que la forma que se ve por fuera no es casual, que esa forma que se ve de lejos es el reflejo de la forma en que se hace. Es algo así como cuando tú y yo nos sentamos en una casa o en un bar o en un banco de un parque, no en una oficina, y nos imaginamos cómo será. Nos imaginamos la situación. Y estamos abiertas a permitir que pase. Para que pase, trabajamos, trabajamos, trabajamos, pero también nos relajamos, nos tratamos bien, nos damos mucho amor. Nos sentamos con otras, las de Donostia, las de Gasteiz, vamos imaginando con ellas también, haciéndolo real.

Nos encontramos en Azala, imaginamos con ellas también. Escribimos mensajes largos para cada una de las personas que queremos invitar, las llamamos por teléfono, nos reunimos con ellas. Hacemos tablas de cálculo y ponemos ahí los números, decidimos juntas cómo gastamos esos números, por ejemplo, en que las personas que finalmente vienen tengan camas en las ciudades para cuando estén cansadas, y puedan estar de visita todo el tiempo que dure la situación. Nos lo gastamos en dar de comer a todas, en dar de cenar a todas. Nos dejamos dar unos besos cuando estamos agotadas. Son cosas así, pequeñas y grandes, algunas imperceptibles para el ojo humano, las que pueden llegar a armar una atmósfera entre la gente.

En Donostia y en Gasteiz hubo siempre alguien en la puerta acogiendo y despidiendo a cada una de las personas que entraba. Ese gesto ya es en sí mismo preciso y precioso.

Donostia, marzo de 2025

AUTOERRETRATU PERFORMANCE PERFORMANCE AUTORRETRATO

Educaciones 2024 Arte Garaikideko Tailerrak Gazteentzat Talleres de Arte Contemporáneo para Jóvenes

Yun Ping Li 昀平李

Inmersiones jaialdiaren XVII. edizioan *agur eta ciao* lelopean garatu-tako autoerretratu-performance lantegietan, batez ere, talde-irudiak sortu ziren, argazkilaritza-ekintzaren izaera performatiboa nabarmenduz. Lantegietan alderdi performatiboa eta argazkigintza hibridatuz, esplorazio- eta jolas-eremu bat zabaltzen zen sortzaileentzat; hala, buru-belarri erreparatu zitzaion irudiak sortzeko prozesuari, irudiak bezain garrantzitsua dela ulertuz.

Orla-argazkitik abiatuta —zeinak etapa bat ixten duen, eta beste bat abiatzen— norbere burua autoerrepresentatzeko irudiak sortu nahi ziren. Ikasleek, etxeko lan gisa, bi gauza ekarri behar zituzten: batetik, beren bizitzako une zehatz hori ezaugarritzen zuen eta eroso sentiarazten zituen arropa. Hala, norberak bere buruaz erakutsi nahi zuen xehetasun oro zaindu zen, eta aintzat hartu zen beren buruaren zer oroitzapen gorde nahi duten bizitzaren aro honetan.

Bestetik, beren argazki kutuna ekartzeko eskatu zitzaion. Lantegian, irudi hori birstutu behar zuten, eta goititzen batekin sinatu; hala, kamerarekiko tentsioa hauts zitekeen, eta norbere irudiaren eta identitatearen gaineko kontrola berreskuratu.

Azkenik, zera azpimarratu nuen: oso garrantzitsua zen atseden hartuta, gosalduta, burua argi eta, batez ere, ondo pasatzeko gogoz etortzea. Lantegiaren bitartez askatasun-espazio bat sortu nahi zen, oroitzapen polit batez gainera esperientzia aberasgarri bat eskaintzeko asmoarekin.

Ikasleak arduratu ziren irudiak hutsetik sortzeaz: kamerara gerturatuz eta urrunduz, espazioaren eta beren gorputzarekin duten harremanaren arabera osatu zituzten erretratuak, eta, halaber, objektuekin, arroparekin eta besteekin zuten harremana aintzat hartuz. Horri esker, arreta jarri zen, aldi berean, forman, gorputzaren gaineko kontzientzia eta, azkenik, sortutako irudian.

Los talleres de performance autorretrato realizados en la XVII edición de Inmersiones bajo la temática *agur eta ciao* se centraron en la creación de imágenes grupales haciendo especial énfasis en la performatividad del acto fotográfico. Entender los talleres desde la hibridación de lo performático y fotográfico abrió un espacio de exploración y juego por parte de lxs creadorxs, lo que permitió centrar la atención al proceso de creación de las imágenes, entendiendo que éste era igual de importante que las imágenes en sí mismas.

Partiendo de la foto de orla, aquella con la que se cierra una etapa y se da pie a otra, la intención era la de generar una imagen autorrepresentativa. El alumnado tenía como deberes traer, por una parte, ropa que les caracterizara en este momento vital y con la que se sintieran cómodxs. De esta forma, se cuidó cada detalle de lo que cada unx quiso mostrar de sí mismx, teniendo en cuenta cómo quisieron ser recordadxs en este periodo vital.


Por otra, también se les pidió traer su foto favorita. El ejercicio a llevar a cabo en el taller consistió en recrear dicha imagen y firmar con un pseudónimo, tratando así de romper la tensión con la cámara y tomando el control sobre la imagen e identidad propia.

Por último, destaqué la importancia de que vinieran bien descansadxs, desayunadxs, con la mente despejada y, sobre todo, con la intención de pasárselo bien y divertirse. El taller consistía en generar un espacio de libertad y su intención residía en tener una experiencia enriquecedora además de un bonito recuerdo.

Fue el propio alumnado el encargado de crear las imágenes desde cero, por lo que acercándose y alejándose de la cámara, las compusieron en base al espacio y su relación con el cuerpo, así como con los objetos, la vestimenta y entre ellxs. Esto permitió, a su vez, centrar la atención a la forma, a la conciencia corporal y por último, a la imagen creada.













BILTZARRA / CONGRESO



nosferatu dancing to lady gaga

Las nenas

Neure sormen-prozesua 20 URRATSETAN, ane tartean dela:

1. nik piti 1 erretzen dt
2. anek galdetzen dit: bueno ze ingo dgu?
3. isiltasuna
4. (aneri aurea hartuz, galdetzen dut) bueno ze, ze ingo dgu?
5. ztakit, nola ingo dgu?
6. anek dio: egitura bat egin behar da
7. cristinak (nik) diot: zetako, zu hasi idazten ta ya
8. ane isilik
9. cristina isilik
10. bietako batek galdetzen du: bueno ze, ze ingo dgu? (anek ez daki baina "bueno ze, ze ingo dgu" berea da eta denbora 1 daramat berak baino lehenago esatera jolasten)
11. frustrazioa
12. bietako batek dio: bueno, badakigu nola egiten den, ondo goaz
13. zeoze automatikoa idazten dut momentu honek dakarren frustrazioari buruz / zeoze idazten dut edozeri buruz baina momentuko frustrazioari buruz izaten da
14. anek dio: eta honekin ze ingo dgu?
15. anek egitura 1 egiten du nik egin dudanarekin egin behar duguna antolatzeko eta ariketak proposatzen ditu, egiten segitzeko
16. cristinak (nik) zalantzan jartzen du, egitura (anek beti onartzen du, hori delako zailena, nik beti zalantzan jartzen dut, hori delako errazena)
17. bietako batek amore ematen du eta anek beste testu bat idazten du beste zeozeri buruz, badirudi testu komuna badoala norabait
18. anek hemen bere testua erakusten du normalean eta nik ez dut ezer esaten eta pentsatzen du ez zaidala gustatzen baina zalantzan jartzen dut, besterik ez, errazena delako
19. (1aren eta 19aren artean gutxienez 4 aldiz joan naiz erretzera eta pauletak 2 aldiz deitu du) hemen normalean elkarri erakusten diogu idatzitakoa, nik ez dut inoiz erakutsi nahi, lotsagatik, eta erakutsi nahi badut esan nahi du ez dela hain ona
20. testua ez doa inora baina anerena gustatzen zait eta aneri nirea, edo gutxienez onartu egiten dugu edo nire intuizioak dio hala behar duela. buruko mina daukagu, eta orduan anek dio: bueno krispi ni banoa eta nik esaten diot: ale xula laster arte

Mi proceso creativo en 20 PASOS, incluyendo a ane:

1. yo m fumo 1 piti
2. ane pregunta ¿bueno k, k hacemos?
3. silencio
4. (m adelanto a ane y pregunto) ¿bueno k, k hacemos?
5. nose ¿como lo hacemos?
6. ane dice: hay que hacer una estructura
7. cristina (yo) dice no hace falta tu ponte a escribir y ya
8. ane silencio
9. cristina silencio
10. una de las dos pregunta ¿bueno k, k hacemos? (ane no lo sabe pero el "bueno k k hacemos" es suyo y hace 1 tiempo juego a decirlo antes k ella)
11. frustración
12. una de las 2 dice: bueno sabemos hacerlo, vamos bien
13. escribo algo automático sobre la frustración k m produce ese momento / escribo algo sobre cualquier cosa pero suele ser sobre la frustración de ese momento
14. ane dice y con esto k hacemos?
15. ane hace 1 estructura para organizar lo k tenemos k hacer con lo k he hecho y propone ejercicios para seguir haciendo
16. cristina (yo) la cuestiona. a la estructura (ane siempre acepta pork es lo difícil, yo siempre cuestiono pork es lo fácil)
17. una de las dos cede, y ane escribe otro texto sobre otra cosa, el texto en común parece k va a algún sitio
18. ane aquí suele enseñar su texto y yo no digo nada y se piensa q no m gusta, pero solo lo cuestiono, xk es lo fácil.
19. (entre el 1 y el 19 me he ido x lo menos 4 veces a fumar y pauleta ha llamado 2 veces) aquí solemos enseñarnos lo k hemos escrito, yo nunca quiero enseñarlo xk me da vergüenza, y si kiero enseñarlo esk tampoco es tan bueno.
20. el texto no va a ningún sitio pero ami me gusta lo d ane, a ane le gusta lo mio, o x lo menos lo aceptamos o mi intuición me dice q tiene q ser así. nos duele la cabeza, entonces ane dice: bueno krispi m voy y yo le digo: ale xula nos vemos3



Dolua (des)mitifikatzea: lagunen arteko konfabulazio bat, agur esateko

(Des)mitificar el duelo: una confabulación entre amigas para decir adiós

Lorena García Espino + Nelly Ramos

Agur esateko hiru modu ikus-entzunezko proiektu performatiko bat da: heriotzarekin daukagun harremana ikertzen du; horretarako, aintzat hartzen da zer-nolako irudiak biltzen ditugun, eta aztertzen da nola jartzen duten zalantzan irudi horiek denborari buruzko ikuspegi lineala —doluaren narratiba hegemonikoez ezarria—. Lan honek, bada, zalantzan jartzen du honako ideia hau: erabilgarritasunik edo agentziarik ez duelako mundu materialean garrantzia galtzen duen oro ahaztearen ideia. Bost urtez garatu da proiektua, eta hainbat elementu uztartzen ditu: amaitu gabeko bideoak, eguneroko pertsonal bateko aipuak, eta agurra bilatzeko esplorazio digital bat; hala, heriotzarekin elkar-bizitzeko modu berriak ahalbidetzen dituen corpus bat eraiki nahi da.

Inmersiones jaialdiaren barruan, materialen berrikuspen bat aurkeztu zen, Nelly Ramosekin batera, artista plastikoa eta irudiaren ikertzailea; nire laguna eta *roommate* ohia da. Biok bizi izan genituen galera pertsonalak eta kolektiboak pandemian, tartean gurasoen heriotza eta Peruko testuinguru politikoa, 2020ko azaroaren 14ko estatututik kolpearen ostean. Harrezkero, dolua eta heriotzarekiko dugun harremana aztertu ditugu gure arte-praktiken ardatz nagusi gisa, eta horrek bizitzeko modu berriak eman dizkigu.

Elkarrizketa honen bidez, zera erakutsi nahi dugu: afektuen, adiskidetasunaren eta zaintzen bidez, kolektiborantz heda dezakegula gogoeta hau, izateko eta dolua bizitzeko modu ez-hegemonikoak aldarrikatuz. Proiektu honek ez du behin betiko erantzunik bilatzen; aldiz, espazio seguru bat ireki nahi du, hartara, jada ez daudenenganako, geure lagunenganako eta irudiekiko loturak nola berrantolatatu irudika dezagun.

Tres maneras de decir adiós es un proyecto performático audiovisual que investiga nuestra relación con la muerte a través de las imágenes que almacenamos y cómo estas desafían la visión lineal del tiempo impuesta por las narrativas hegemónicas del duelo. Este trabajo cuestiona la idea de olvidar todo aquello que, desprovisto de utilidad o agencia, pierde relevancia en el mundo material. Con cinco años de desarrollo, el proyecto combina vídeos inacabados, citas de un diario personal y una exploración digital para buscar la despedida, buscando construir un corpus que permita nuevas formas de con-vivir con la muerte.

En el marco de Inmersiones, se presentó una revisión de estos materiales en colaboración con mi amiga y *exroommate* Nelly Ramos, artista plástica e investigadora de la imagen. Ambas compartimos una historia atravesada por pérdidas personales y colectivas durante la pandemia, incluida la muerte de nuestros padres y el contexto político en Perú tras el golpe de Estado del 14 de noviembre de 2020. Desde entonces, hemos explorado el duelo y nuestra relación con la muerte como eje central de nuestras prácticas artísticas, lo cual nos dio nuevas formas de vivir.

A través de este diálogo, queremos mostrar cómo los afectos, la amistad y los cuidados permiten expandir esta reflexión hacia lo colectivo, reivindicando modos no hegemónicos de ser y vivir el duelo. Este proyecto no busca respuestas definitivas, sino abrir un espacio seguro para imaginar cómo reconfigurar nuestros vínculos con quienes ya no están, con nuestras amigas y las imágenes.



FABULACIÓN ENTRE AMIGAS ♥

¿CÓMO ME
RELACIONO
CON ESAS
IMÁGENES
QUE TANTO
ATESORO?

UNA IMAGEN
NO SE
TRANS-
FORMA

HACEMOS VIVAS LAS
IMÁGENES A TRAVÉS DEL
DIALOGO



IÑURRITEGIAREN BABESA Minbiziari besarkada EL APOYO DEL HORMIGUERO Abrazando el cáncer

Iñurri Elkarte (www.izaninurri.eus • @izan_inurri)

Iñurritegia da gure tribua, gure babesa, gure akonpainamendua.

2019an jaiotako elkarte gara. Minbizia normaltasunez, tabuetatik libre eta zuzenean nahiz zeharka bizi dugun emakumeak ahalduntzeko espazioak sortzen ditugu, mamuak zokoratu eta ixiltasuna hautsiz.

Minbizian akonpainatu, formatu eta informatu egiten dugu, ikuspegi feminista eta eraldatzaile batetatik.

Horregatik minbiziari besarkada ematen diogu, bizipen garden eta taburik gabea aldarrikatzen dugu, bizitza hankaz gora jartzen duen gaixotasuna da, minbizia ez da larrosa, marroi bat da.

Gure aldarria ere baliabide publiko gehiago izatea da: osasun mental eta psikologikoa, nutrizioa, sexualitatea, fisioterapia, ekonomia.

Podcast desberdinak egin ditugu. Gure esperientziak eta aldarriak jendeak entzuteko (MIN)BIZI euskerazkoak eta DRAGÓN CÁNCER erderazkoak.

Komunitate irekia gara eta bakoitzaren denborak eta intimidadea errespetatzen ditugu.

Erretiroak, bertso saio musikatuak, kafeak, kedadak, kirola eta beste hainbat ekintza egiten ditugu batera.

Diru iturri handiena denda solidariotik lortzen dugu.

Ongi etorri ñurritegira!

El hormiguero es nuestra tribu, nuestro apoyo, nuestro acompañamiento.

Somos una asociación nacida en 2019. Creamos espacios para empoderar a mujeres que vivimos el cáncer, ya sea directa o transversalmente, y para vivirlo con normalidad y sin tabús; arrinconando los miedos y rompiendo el silencio.

Acompañamos, formamos e informamos en el cáncer, desde una perspectiva feminista y transformadora.

Por ello, abrazamos el cáncer, reivindicamos una vivencia transparente y libre de tabús; es una enfermedad que pone la vida patas arriba, el cáncer no es rosa, es un marrón.

Reivindicamos más recursos públicos: salud mental y psicológica, nutrición, sexualidad, fisioterapia, economía.

Hemos hecho varios *podcasts* para hacer oír nuestras experiencias y reivindicaciones: (MIN)BIZI en euskera y DRAGÓN CÁNCER en castellano.

Somos una comunidad abierta y respetamos los tiempos y la intimidad de cada cual.

Llevamos a cabo actividades conjuntas tales como retiros, sesiones de bertsolarismo acompañadas de música, cafés, quedadas y deporte.

Nuestra mayor fuente de ingresos proviene de nuestra tienda solidaria.

¡Os damos la bienvenida al hormiguero!



...ingako giza, oheru ginean ez zegoela
...de normalizatu, tabakak 1000 eta
...an nahiz zaharke bati duen jatorriak
...zako anan lantzeko gurek. Ogan arteko
...ngi utzi dugu prentsa emak, urgeta eta
...ano fusioarengatik erantzuten ari gara.
...nabizien alorquereku, formatu eta
...vegiten dupe, kuzpegi konstante batetik,
...te epaiki gabe. Formakio zehatzak egiten
...talenak, formazioak, emakioak, bertas
...dopodunak, egutegiak... Hark
...n bapena gordin eta laburki gabe
...en diveta baliakide publikoak eskatu
...n maset eta psikologikoa, nutrizio
...te, fisioterapi, ekonomia.



Lurra irakurtzen ikasi zenuen lekua jada ez da existitzen

El lugar en el que aprendiste a leer la tierra ya no existe

Inés Plasencia Camps

Ingelesez, *dwell* aditzak “zerbaiti erreparatu” edo “bizi izan” esan nahi du. Dolua, oro har, prozesutzat hartzen dugu: hasi eta bukatu egiten da, eta etapa jakin batzuk ditu, psikologiak zehaztuak; hala ere, dolua ez dago fasez osatuta, egoeraz baizik, eta ziklikoak lirateke, ez linealak. Egoera horietako bat aukeratu behar banu, dolua, oroz gain, edo niretzat behintzat, ezagutzen dugunaren muga-egoera bat da, bizidunaren eta ez-bizidunaren arteko muga bat; leku horretan bizi egiten da, ez dugu besterik gabe sentitzen.

Iristear den heriotzaren edo berriki gertatu den heriotzaren minak denboratasun anitz batera zaramatza: orainaren eta etorkizunaren arteko muga-espazio horrek markatzen du, eta orobat dakartza iraganerako bidaiak, ez gutxi. Hala eta guztiz ere, etorkizuna lantzeko fikzioa baino ez daukagu, eta ez da *zehazki horrelaxe* gertatuko, zeren, ezjakintasunaz gain, gure esperientzia eta desirak ere tartean ibiliko baitira. Ama-zurtz, aita-zurtz eta lagunmin-zurtz geratu nintzenetik, muga horietan gertatzen diren kontakizun liminalei buruz pentsatzen dut, eta uste dut zera errealarari existentzia eta ulerkerak berriak emateko tresnak direla. Uste dut, Laura Fernándezek dioen bezala, *Munstro bat dagoela lakuan*, mundua leku fantastikoa dela, eta pertsonok geure zimenduak mugitzen ditugula, geure hildakoak —baita geure hildako kolektiboak ere— ikusteko, besarkatzeko, eta haiei zentzu berriak emateko. Geure hildakoek mundua azaltzen digute, eta haien absentiaren dimentsio politikoak gogora ekartzen ditu ez soilik haien bizitzak, ezpada mundu berdinzaleago eta bidezkoagoak lortzeko aukerak ere.

En inglés, *dwell* significa “fijarse en” o “habitar”. Aunque generalmente relacionamos el duelo con un proceso con principio y final y una serie de etapas definidas por la psicología, este no estaría constituido por fases sino por estados y serían cíclicos, no lineales. Si tuviera que decantarme por uno de esos de estados, el duelo es, ante todo, o para mí, un estado en el límite de lo conocido, una frontera entre lo vivo y lo no vivo, un lugar más habitado que simplemente sentido.

El dolor de la muerte inminente o reciente te lleva a una temporalidad múltiple, que marca ese espacio límite entre el presente y el futuro, además de no pocos viajes al pasado. No obstante, para el futuro únicamente tenemos la ficción, lo que no ocurrirá *exactamente así* porque estará mediado además de por la incertidumbre, por nuestra experiencia y nuestros deseos. Desde que soy huérfana de madre y padre y de mejor amiga indago sobre relatos liminales que se dan en estas fronteras y las pienso como herramientas para darle a lo real una existencia y una comprensión nuevas. Creo, como Laura Fernández en *Hay un monstruo en el lago*, que el mundo es un lugar fantástico, y que las personas movemos nuestros cimientos lo necesario para volver a ver a nuestras muertas, también a nuestras muertas colectivas, para abrazarlas, pero también para dotarlas de nuevos sentidos. Nuestras muertas nos explican el mundo y la dimensión política de su ausencia rememora no solo sus vidas, sino la posibilidad de mundos más iguales, más justos.



Bere lana, bere lan propioa Su trabajo, su propio trabajo

Mirari Echávarri

Badira bi hilabete irakurtzen eta oharrak hartzen nabilena. Bi dokumentu dauzkat, hitz-kopurua: milaka batzuk, bi-bietan. Gehienak, besteren aipuak. Prozesuaren zati hori gozagarria zait.

Honelako zerbait egiteko gonbidapenak irrika pizten dit, hasiera-hasieran kezka-puntu batekin, esku hutsik geratzeko beldurrez; ondoren, irakurketa-egarriz. Eskuak betetzen baditut hitzekin, neureak izan ez arren, ase egiten naiz une batez.

Badira bi hilabete irakurtzen eta oharrak hartzen nabilena. Bi dokumentu dauzkat, hitz-kopurua: milaka batzuk, bi-bietan. Gehienak, besteren aipuak. Prozesuaren zati hori gozagarria zait. Hona etortzeko gonbidapena onartzeak, honelako zerbait egiteari baietz esateak, energia-kolpe bat eragiten du, azelerazio bat, aktibatu egiten nau. Lehen minutuetan zenbait ideia bururatzen zaizkit, eta mugikorrean biltzen ditut bizkor, ez ahazteko. Ondoren, kolpea jaisten da, eta, eskuei begirata, hutsik daudela ikusten dut. Lanari ekitea beste aukerarik ez dago.

Irakurtzea eta idaztea zera beraren parte dira; eta zera hori behar dut. Orobat behar ditut aurrekari batzuk, ezin diot ezeri aurre egin hura atzeratu gabe, tarte batez atarian geratu gabe. Oraintxe bertan bezala.

Baina lanari buruz hitz egin nahi dut, eta erakutsi. Lana eta neure burua erakutsi.

Ohartu naizenez, tarte baten ostean, erakuste-esperientzia bakoitzaren emozio gutxi-asko oinarritzko batera murrizten da neure gogoan. Batzuk, lotsara murriztu dira.

Lotsa beti dago, denean, gaur ere bai, hemen, baina ez dut horri buruz hitz egin nahi.

Lanaz hitz egin nahi dut, eta hura erakustez. Lana eta neure burua erakustez. Eta hori egiteko modu narratibo baten bila nabil, kontakizunak erakartzen bainau, eta egiten dudanaren parte izaten baita.

Ikusi nahi dut ea gai naizen zer edo zer esateko, hemendik tarte batera ere egia izaten segituko duena. Baina hori, orain, ezin dut jakin.

Llevo dos meses leyendo y tomando notas. Tengo dos documentos con varios miles de palabras. La mayoría citas de otras. Es una parte del proceso que disfruto.

La invitación a hacer algo como esto activa en mí las ganas, muy al principio en forma de ansiedad, el miedo a las manos vacías, después en forma de voracidad lectora. Llenar esas manos con palabras, aunque no sean mías, me sacia por un momento.

Llevo dos meses leyendo y tomando notas. Tengo dos documentos con varios miles de palabras. La mayoría citas de otras. Aceptar la invitación a venir aquí, a hacer algo como esto, genera un golpe de energía, una aceleración que me activa. En los primeros minutos se me ocurren varias ideas y las apunto rápido en el móvil para que no se me olviden. Después el golpe baja y al mirarme las manos, veo que están vacías. No queda otra opción que ponerse a trabajar.

Leer y escribir son parte de lo mismo, algo que necesito. También necesito preámbulos, no puedo enfrentarme a algo si no es posponiéndolo, quedándome un rato en el portal de entrada. Como ahora mismo.

Pero quiero hablar del trabajo y de exponerlo. De exponer y exponerme.

Me he dado cuenta de que después de un tiempo, cada experiencia expositiva queda reducida en mi memoria a una emoción más o menos básica. Algunas se han reducido a la vergüenza.

La vergüenza siempre está, en todo, hoy aquí también, pero no es de eso de lo que quiero hablar.

Quiero hablar del trabajo y de exponerlo. De exponer y exponerme. Y busco una forma narrativa de hacerlo porque el relato me atrae y suele formar parte de lo que hago.

Quiero ver si consigo decir algo que siga siendo verdad pasado un tiempo. Pero eso no lo puedo saber ahora.



Threaded Connections

Karlos Martínez Bordoy


